



getxo Berri

Getxo
bizi ezazu

#GetxBiziEzazu

Doako alea


1.615 zk.
www.getxo.eus

Azaroak 26
>> Abenduak 06

2020

/ Nabarmentzekoak

- > 150.000€ laguntzetan, ikasturteko hezkuntza-gastu orokorretarako (2. or.)
- > Euskaraldiaren bigarren aldiaren murgilduta, abenduaren 4ra arte (3. or.)
- > 200.000€-ko diru-laguntza arautzeko hitzarmena onartuta Urgulleko lokala birmoldatzeko proiekturako (5. or.)



Antzerkia. Abenduak 5, larunbata, Muxikebarrin (Ereaga aretoan), 19:00etan, "Pídeme perdón", Perigallo Teatrotan eskutik. Sarrera: 12€.

Kontzertua. Abenduak 6, igandea, Muxikebarrin, 19:00etan, "Mende berria kantuz", honako talde hauen eskutik: Euskeria Korua, Gaudeamus Korala eta Lauko Quartet. Sarrera: 8€.

**A-
GENDA**

Aurten, Udalak 2 milioi euro baino gehiago bideratu ditu udalerriko merkataritzara, ostalaritzara, zerbitzu profesionaletara eta enpresa txikietara

Terrazen eta zaborren tasak murriztea, eta ostalaritzako eta jatetxeetako negozioak zabaltzeko eta kudeatzeko laguntzak

Enpresen Aholku Foroaren esparruan burutu diren ostalaritzako mahaietan aurkeztutako proposamenak kontuan hartuta, Udalak laguntza programa berri bat onartu du osasun krisiak ostalaritzaren eta jatetxeen sektorean izan dituen ondorioak arintzeko. Pandemia hasi zenetik, hau da, aurtengo martxoaz geroztik, Udalak emandako laguntza eta neurri gehitu behar zaizkie oraingo ekintza berri hauek. Amaia Agirre alkateak prentsaurrekoan adierazi duenez, "alarma-egoera hasi zenetik, Udal Gobernu Talde honen lehentasun osoa pertsonak, gizarte-sarea (kultur elkarteak, kirol taldeak eta abar) eta ekonomia-esparrua izan dira. Pandemia honetan, laguntza eta neurri gisa zuzendutako diru-kopuruari dagokionez, 4 milioi euro erabili dira oraingoz; horietatik 2 milioi baino gehiago udalerriko merkataritzara, ostalaritzara, zerbitzu profesionaletara eta enpresa txikietara bideratu dira".

Laguntza berriak

Ostalaritzara eta jatetxeen sektorerako bideratutako laguntza sorta berriak 82.000 euroko inbertsioa ekarriko du. Zerga-arloan, 2020. urteari dagokionez, Udalak espazio publikoa okupatzeagatik tasaren zati proportzionala itzuliko die ostalariei



Alkatea, EAJ/PNV eta PSE-EE alderdietako gobernu taldeko kideekin batera

terrazak instalatu ezin izan diren hilabetei dagokiena, hain zuzen ere. Azken itxiera-aldi horretako terrazen tasaren zenbatekoa ofizioz itzuliko da 2021eko lehen hiruhilekoan (lehen itxiera 2020ko tasatik murriztu zen). 2021era begira, osoko bilkuran onartuta, %50eko behe-

rapena aurreikusten da terrazak urte osoan instalatzeagatik (45.000€ ez ditu sartuko Udalak) eta 2021eko bigarren hiruhilekoko zaborren tasaren %95eko hobaria ematea proposatzen da (37.300 €).

Halaber, Ekonomia Sustapen eta Enplegu Zerbitzuaren bidez, ostala-

Adierazpen instituzionala azaroaren 25a dela eta

Azaroaren 25ean ospatzen den Emakumeenganako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna dela eta, Amaia Agirre alkatea buru duen Udaleko Bozeramaleen Batzordeak adierazpen instituzional bat onartu du asteazken honetan, EAJ-PNV, PSE-EE, EH-Bildu eta Elkarrekin Podemos taldeen aldeko botoekin eta PPren abs-

tentzioarekin. Horretan, Udalak, besteak beste, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen eskubideak arreta-prozesu osoaren erdigunean jartzeko, adia-ego egoteko, laguntza-zerbitzuak mantentzeko eta COVID-19aren krisiaren eragina aztertzekeo konpromisoak hartu ditu. Testu osoa: <https://bit.ly/3l5PIvV>

ritzako eta jatetxeetako profesionalei honako hauek eskaintzen zaizkie:

1.- Banakako aholkularitza:

- ✓ ostalaritza-establezimenduen egoera ekonomiko-finantzarioa aztertzea, egoerari aurre egiteko.
- ✓ negozio-ildo berriak abian jartzea (take away/delivery).

2.- Eusko Jaurlaritzak ostalaritzarako eta etorkizunerako dei ditzakeen beste batzuetarako ematen dituen laguntzen eskaerak izapidetzen laguntzea.

3.- Webgunean take away (establezimenduan jasotzea) eta delivery (etxez etxeko janaria ematea) zerbitzuak eskaintzen dituen udalerriko ostalaritzari buruzko informazioa ezartzea. Hurrengo egunetan www.ostalaritza.getxo.eus webgunea erabilgarri egongo da.

4.- Eta, azkenik, laguntza-zerbitzu bat eskainiko da terrazak instalatzeko eskaerak izapidetzeko (bai berrientzat, bai dagoeneko eginda daudenentzat), COVID-19k eragindako salbuespeneko egoerak irauten duen bitartean.

Informazio gehiago: getxolan@getxo.eus eta harremanetarako telefonoa: 94 466 01 40.

KAISHOP!

Zer gura dozu?
...erosi euskaraz,
Getxon!

Getxo Bizkaia Euskaraldiaren baita

Berton erosi! **¡Dale vida a Getxo!**

GETXO BONO 2020

MERKATARITZA OSTALARITZA AISIALDIA | COMERCIO HOSTELERIA OCIO

20€ → 25€
40€ → 50€

Konsultatu atxikitako establezimenduak hemen: www.getxo.eus/getxobonoa
Consulta los establecimientos adheridos en www.getxo.eus/getxobonoa

Bonoak urriaren 29ra arte dira baliagarriak Los bonos se pueden canjear hasta el 29 de octubre

Getxo Enpresa ROMO BIZIRIK Asoghe Getxo



AZAROAK 26 OSTEguna

Euskaraldia. Ikusi 3. orrialdea.

Zinemabari. Muxikebarrin (Areeta aretoan), 19:00etan, jatorrizko bertsioan azpittuluekin, "En realidad, nunca estuviste aquí" (Lynne Ramsay). Sarrera: 3,50€.

AZAROAK 27 OSTIRALA

Euskaraldia. Ikusi 3. orrialdea.

Gebxoarte 2020: artista bat auzoan. Romo Kultur Etxean, 16:00etatik 19:00etara, Izaro leregik "Encontrarás la manera" proiektuaren sorkuntza-prozesuak abian jarriko ditu. Batxilergo Artistikoko ikasleei zuzenduta. Sarrera dohainik edukiera bete arte.

Antzerkia. Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatze Nazioarteko Eguna. Muxikebarrin (Arrigunaga aretoan), 17:30 eta 19:30ean, "Birritan bortxatua", Aldatzen Laguntzen antzerki taldearen eskutik. Euskaraz. Sarrera: 8€.

Zine-kluba. Romo Kultu Etxean, 19:00etan, Roy Anderssonen "Sobre lo infinito" filmaren proiektzioa eta foruma. Sarrera: 3,50€.

AZAROAK 28 LARUNBATA

"Agora tocan ellas" kontzertu dramatizatua. 19:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Ainhoa Rinconek (biolina, ahotsa, aktorea) eta Ixone Mendietak (pianoa). Sarrera: 5€.

Ingurumen Aretoa. 11:00-13:30. "Bolue Natur Gela" (hezegunetik ibilbide gidatua). 6 urtetik gora. www.ingurumenaretoagetxo.eus

AZAROAK 29 IGANDEA

Zinemabari. Muxikebarrin (Areeta aretoan), 12:00etan, "Mina y el mundo de los sueños". Adin guztientzat. Sarrera: 2,50€.

Kontzertua BERTAN BEHERA. Dena DeRoseren Pio Lindegarderen omenezkoa.

Ingurumen Aretoa. 10:30-11:45 eta 12:15-13:30h. Txiki tailerra: "Egin ezazu zure puxtarrien labirintoa" (6 urtetik gora). www.ingurumenaretoagetxo.eus



- **Errentan emateko** Abra 4 erai-kinean 7 m2-ko departamentua. Tel.: 94 602 07 42.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia eragazkotasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jauritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza-erakundeetako albisteak eta informazioak agertzen dira astero. Komunikazio zinegotzia: Ainhoa Galduroz. Zuzendaria: Javier García. Erredaktoreburua: Itziar Aguayo. Erredakzioa: Nekane Ardanza.

ABENDUAK 1 ASTEARTEA

Erakusketa. Algortako Kultur Etxean, "Desarrollo en positivo: otra mirada a las personas empobrecidas del sur" izeneko erakusketa, udaleko Garapenerako Lankidetzaren Arloaren eskutik. Hilaren 20ra arte.

ABENDUAK 2 ASTEAZKENA

Euskaraldia. Ikusi 3. orrialdea.

Liburu aurkezpena. Romo Kultur Etxean, 19:00etan, Rosa Arcosen "El felpudo" liburuaren aurkezpena, egilearen eskutik. Sarrera doan, edukiera bete arte.

ABENDUAK 3 OSTEguna

Euskaraldia. Ikusi 3. orrialdea.

Zinemabari. Muxikebarrin (Areeta aretoan), 18:00etan, jatorrizko bertsioan azpittuluekin, "La candidata perfecta", Haifaa Al-Mansourren filma. Adin guztientzat. Sarrera: 3,50€.

ABENDUAK 4 OSTIRALA

Euskaraldia. Ikusi 3. orrialdea.

Antzerkia BERTAN BEHERA. "Ophelia", Utopiaren lana, bertan behera geratu da.

Zine-kluba. Romo Kultur Etxean, 18:00etan, jatorrizko bertsioan azpittuluekin, Ayumu Watanaberen "Los niños del mar" filmaren proiektzioa eta foruma. Adin guztientzat. Sarrera: 3,50€.

ABENDUAK 5 LARUNBATA

Antzerkia. Muxikebarrin (Ereaga aretoan), 19:00etan, "Pídeme perdón", Perigallo Teatrorren eskutik. Sarrera: 12€.

ABENDUAK 6 IGANDEA

Kontzertua. Euskararen Nazioarteko Eguna. Muxikebarrin (Ereaga aretoan), 19:00etan, "Mende berria kantuz", honako talde hauen eskutik: Euskeria Korua (Bilboko Korala Elkartea), Gaudeamus Korala (Gernika) eta Lauko Quartet. Sarrera: 8€.

Zinemabari. Muxikebarrin (Areeta aretoan), 12:00etan, "Stardog & Turbocat". Euskaraz. Adin guztientzat. Sarrera: 2,50€.

Haur zinea. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Boonie Bears: aventura historiarrean". Adin guztientzat. Sarrera: 2,50€.

- **Neska** euskalduna prest dago adinekoak zaintzeko eta/edo arropa litzatzeko. Esperientziaduna eta txostenekin. Arratsaldez. Tel.: 635 80 66 19.

- **Pianoa.** Irakasle tituludunak eskolak online eta/edo presentzialak ematen ditu (Algorta). Maila eta estilo guztiak. Tel.: 658 721 059. mikelpiano@yahoo.com

Eskabideak aurkezteko epea behar bezala jakinaraziko da

150.000€ laguntzetan, ikasturteko hezkuntza-gastu orokorretarako

Udal Gobernu Batzordeak onartu ditu 2020-2021 ikasturtean beren seme-alaben hezkuntzako gastu orokorretarako Getxoko familiei emango zaizkien dirulaguntzen deialdiaren oinarri arautzaileak, eta 150.000 euro bideratuko ditu horietara. Deialdi honen berritasunak dira familia-unitatearen kontzeptua sinplifikatzea eta familia-unitateko zenbatekoak han-

ditzea. Egungo egoera dela eta, eskatutako dokumentazioa ahal dela online aurkeztu beharko da Administrazio Elektronikoaren Bulegoaren bidez, deialdia ofizialki argitaratu ondoren (datak behar bezala iragarriko dira).

Baldintzak

Hezkuntzako gastu orokorretarako dirulaguntza eskuratu ahal izango dute ho-

nako betekizunak betetzen dituzten herritarrek:

1.- Getxoko udalerrian erroldatuta egotea 2020ko urtarrilaren 1etik gutxienez. Errolda seme-alaben etxe berean izan behar du.

2.- Haur hezkuntzako bigarren ziklotik (hiru urte) DBH mailara arte, hau barne, eskolatuta eta 2020ko urtarrilaren 1etik gutxienez Getxon erroldatuta dauden seme-alabak izatea.

3.- Euren seme-alaben eskolatze egokia bermatzeko, eta era berean irakasleek, ikastetxeetako organoek eta hezkuntza-administrazioek egingo dizkieten eskakizunak beteko dituztelako konpromisoa adieraztea.

4.- Getxoko Udalarekin eta Ogasunarekin dituzten zerga-betebeharrak egunean izatea, baita Gizarte Segurantzarekin dituztenak ere.

5.- Behar besteko baliabide ekonomikorik ez izatea. Familia-unitatearen urteko diru-sarrera guztiak, 2019an, ez dira 50.400 euro baino gehiago izango (900 €, 2019ko Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren hileko zenbatekoa, bider 4, bider 14 hileko). Gehieneko muga hori elkarbizitza-unitateko kide kopuruaren arabera haztatuko da.

Eskaera bakarra izapidetu ahal izango da elkarbizitza-unitate bakoitzeko eta familia-unitateko zenbatekoak handitu egingo dira 2019. urtearekin alderatuta. Haur eta/edo Lehen Hezkuntzan seme-alaba bakoitzeko zenbatekoa 60 eurotik 75 eurora igaroko da eta Bigarren Hezkuntzan 100 eurotik 125 eurora. Bizikidetzaren unitate bakoitzeko eman daitekeen gehieneko zenbatekoa 250 eurotik 350 eurora igoko da.

Eskabideak aurkezteko epea behar bezala iragarriko da eta 15 egun natural izango dira, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.



Iturribarri 2ko hitzarmena aldatzeko sinadura

Amaia Agirre alkateak eta Carlos Quindós Visesako zuzendari nagusiak, Iturribarri 2n alokairuko etxebizitzak eraikitzeko lankidetzaren hitzarmenaren aldaketa sinatu dute. Visesak 149 etxebizitza sustatuko ditu esparru horretan (alokairuko 91 gizarte-etxebizitza eta alokairuko 58 BOE). Horiek guztiak Eusko Jauritzaren mendeko Alokabide erakundeak kudeatuko ditu. Sinadura honen bidez, aldatu egin da 2017an sinatutako hitzarmena; ondorioz, baimena ematen da etxebizitzak Eusko Jauritzari edo Alokabideri saltzeko, jabetza osoan. Horrenbestez, gizarte-alokairuko araubidean sailkatuko dira modu iraunkorrean (aurrekoan bakarrik 25 urtez sailkatuta zeuden).



Sasoiko lorearen aldaketa eta haizagailu elektriko berriak garbiketa-zerbitzurako

Udazken/neguko sasoiako lore berriak hasi dira landatzen udalerriko berdegune, jardineria, biribilgune eta irilatxoetan. 639 m2-ko azalera baliokidea duen loredun eremu batean ari dira lanean, eta guztira, 750 ale landatuko dira, hainbat motatakoak: pentsamendua, itsas zineraria, aza, biola, espergularia, erysimum, anthrimum, aquilegia, delphinium, dianthus, myosotis eta papaver espezieak jarriko dira, besteak beste. Halaber, espezie horiek dituzten lorezko 1.735 zotal berri eta 29 zotal zintzilari jarriko dira. Udalak berriro ere lore-eremu horiek guztiak errespetatzea eskatzen du, gure kaleak edertzen baitituzte eta herritar guztien ondarea baitira.

Bestalde, 10 haize-makina elektriko erosi berri dira, Getxoko garbiketa-zerbitzuarentzat. Dagoeneko 20 dira dauden haizegailuak; gasolina erabiltzea saihesten dute eta horren ondorioz, ingurumena hobetzen dute eta kutsatzaileak eta zarata murrizten dituzte.

Victoria Bengoa, Armando Llamosas eta Josu Larrañaga dira 2020ko Argia Ereiten Euskara saridunak

Victoria Bengoak, Armando Llamosas eta Josu Larrañagak jasoko dute Argia Ereiten Euskara Saria abenduaren 2an, 19:00etan, Muxikebarrin. XI. edizioko sarituak, Udalak eta Bizarra Lepoan elkarteak sustatuta, 2011az geroztik egiten ari diren Toponimia ibilbideak edukiz hornitzeaz arduratu ziren. Ordutik lau ibilbideetan (Betiko Getxo, Kostaldeko Getxo, Getxo Barria, Hezeguneak) ia 900 pertsonak hartu dute parte, gehienak ikastetxeetako ikasleak, euskaltegiatako ikasleak, eta herritarrak.

Getxoko toponimia, historia, kultura, natura eta kultur ondarea zabaltea, euskararen erabilera bultzatzearekin batera, izan dira beti Toponimia ibilbideen helburu nagusiak, eta horregatik lehenengo pausua ibilbideetan azaldu beharrekoak lantzea izan zen.

Victoria Bengoa itsas biologoa da eta 2011n Bizarra Lepoan Berbalaguna taldean zegoen. "Nire aportazioa batez ere Hezeguneko eta Kostaldekoan oinarritu zen, fauna eta floraren inguruan. Nire esparrutik oso interesgarria da Getxo. Badaude animal interesgarri batzuk, esaterako apo lasterkaria, eta Abra oso estuario garrantzitsua da, oso babestuta dagoenez, arrain asko etortzen direlako arraultzak jartzera".

Bestalde, Josu Larrañaga euskal



filologoa Bizarra Lepoan taldeko kidea da eta etnografia eta historia gustuko izan ditu beti. Berak adierazi duenez, "toponimia ikerketa lan batzuk zeuden gizarteratu gabe eta euskaldunentzako eskaintza kulturalik ez zegoenez, uste izan genuen polita izan zitekeela hori euskaraz gizarteratzea, herritarrek, baina bereziki gazteek herria, historia, natura eta baita euskarazko izenak zelan txertatzen diren paisaian ere ezagutzeko".

Azkenik, kultur ondarearen arloan egiten duen Armando Llamosas arkeologoaren aportazioa izan zen zerrendatzea leku onenak ondareaz hitz egiteko. "Adibidez, ba-

serrien ezaugarrien, tartean aleroen zergatia, eta arkeologiaren ikuspuntutik itsaslabarra garrantzitsua izan da. Erromatarren aztarna batzuk Andra Marin topatu ziren eta egiteke dago induskatzea herrian. Etxez beteta dagoenez, aukera gutxi dago, eta baserri batzuen azpian aspaldiko aztarnak daude (XVI. mendekoak ere)".

"Sari garrantzitsuena ekimena mantentzea"

Bengoaren iritziz, jendeak ingurua ezagutzea garrantzitsua da, "ezagutzen duguna babesten eta maitatzen dugulako". Ildo horretan, Larrañagaren ustez, "oso interesantea izan da udalak ekimen hau bere kultur eskain-

tzan sartzea". Llamosas aitortu du esfortzua gustura egin zutela eta egun hauetan errepasatu ondoren, zehaztu du "ekimena txikia dela ematen badu ere, garrantzitsua da eragin handia eduki duelako eta jende asko pasatu delako ibilbideak egiteko". Hiru sarituak oso pozik daude ekimenak urteetan iraundu duelako eta gainera euskara sustatzeko ere balio izan duelako. Saria jasotzeak hirurentzat sorpresa izan da eta pozik eta harro sentitzen dira duela urte batzuk egindako lanaz. "Horren aitortza izateaz gain, garrantzia ematea suposatzen du eta gainera euskararen erabilaren mesederako. Sari garrantzitsuena ekimena mantentzea da".

Euskaraldiaren bigarren aldia murgilduta, abenduaren 4ra arte

Euskara ulertzen duten hiztunen hizkuntza-ohiturak aldatzeko gizarte-ariketan murgilduta dago Getxo egunotan; izan ere, gizarteko eremu guztietara zabalduta dagoen gizarte-ariketa da. Euskaraldiaren helburu nagusia, euskararen erabilera handitzea da, herritarren hizkuntza ohiturei astindua emanez. Aurten, abenduaren 4ra bitartean egiten ari da Euskaraldia, eta norbanako gisa parte hartzeko aukeraz gain, -Ahobizi (euskaraz ulertzen duten guztiekin uneoro hitz egiteko), Belarriprest (euskaraz hitz egiteko egoeraren arabera) edo Irribizi (euskararen aldeko jarrera izateko, nahiz eta euskaraz ez jakin) rolen bitartez-, taldeka ere parte har dezakegu, Arigune izeneko rola hartuta (135 entitatek eman dute izena horretarako). Antolakuntzatik uneoro gogoratzen dutenez, rola aukeratzearan "gakoa jokaeran dago, ez hizkuntza gaitasunean".

Bestalde, hartutako rola darमतततत txapez gain, Ahobizi, Belarriprest eta Irribizi musukoak ere salgai daude; musukoak erosi nahi dituenak Algortako Amets Kamisetak eta Pokabroma izeneko dendetan

(Ariguneak) egin dezake.

Jarduera-egitaraua

- Ostegunean, azaroak 26, 17:30ean, Itsaso Pagoagak on-line hitzaldia eskainiko du: *Nola aukeratu jostailuak*. Eta 19:30ean,

Maddi Ane Txoperenaren *Ena baitan bizi da* literatura solasaldia izango da.

- Ostiralean, azaroak 27, 17:30ean eta 19:30ean Muxikebarrin, *Birritan bortxatua* antzerkia eta *Ustruku* ipuinak, aho-korapiloak..., Azebarrin 18:00etan.

- Asteazkenean, abenduaren 2an, Argia Ereiten euskara saria gala ospatuko da Muxikebarrin, 19:00etan.

- Abenduaren 3an, osteguna, Euskararen Nazioarteko Egunean, *Getxoko ikastetxeak Euskaraldiarekin bat!* goiburua ardatz hartuta, hiru hitzordu antolatuko dira: *Laburbira* laburmetraiak Aretako Musika Eskolan, 10:00etan (solasaldia barne) eta 16:45ean, eta *Txor-txor* umorezko bakarrizketa RKen, 19:00etan.

- Eta abenduaren 4an, ostirala, Euskaraldiaren amaiera ekitaldia egingo da Kirol Portuan, 18:30ean.

Abenduko zenbait ikuskizunen ordutegia aldatu da indarrean dauden murrizketengatik

Kultur Etxeak abendurako Muxikebarrin zein beste toki batzuetan programatuta dauden zenbait ikuskizun eta jardueren ordutegia aldatu du, indarrean dauden osasun-neurriak direla eta.

Horrela, 19:00etara aurreratu dira *Pídeme perdón* antzezkiuna (abendua 5), *Hesia urraturik: Xabier Lete in memoriam* kontzertua (abendua 13), Euskadiko Orkestraren (abendua 18) eta Izaroren (abendua 19) saioak eta Yllana taldearen *Maestrissimo* antzezkiuna (abendua 30).

Halaber, Travellin' Brothers Little Band taldearen kontzertua, abenduaren 26an 21:30ean, aurreikusita zegoena, bertan behera geratu da. Bandak egun horretan bertan 19:00etan eskunik duen saioari, berriz, eutsiko zaio.

Hemendik aurrera, Getxon edo aldameneko udalerrietan bizi ez direnek, erositako sarreraren itzulketak eskatu dezakete. Orduz aldatu diren ikuskizunen kasuan, erosketak online eta telefono bidez egin bada, 94 466 01 23 telefono zenbakiaren (8:30-14:30; astelehenetik ostiralera) edota sarreraitzulketak@getxo.eus emailaren bitartez eskatu daiteke, mezuan sarreraren argazkia erantsita eta izen-abizenak eta harremanetarako telefonoa idatzita. Bertan behera utzi den Travellin' Brothersen kontzertuaren kasuan, sarreraren dirua ezer egin gabe itzuliko zaie erosketak txartelaz egin dutenei. Eta txarteldegian edo Kultur Etxeetan eginko erosketen kasuan (eskudiruz edota txartelarekin erositako sarrerak), Muxikebarriko txarteldegira joan beharko da (10:00-

13:00 / 17:30-19:30; astelehenetik ostiralera). Azken kasu horretan, Getxon edo ondoko udalerrietan bizi ez diren erosleak mugikortasun-murrizketak amaitu eta gero joan ahal izango dira Muxikebarriko txarteldegira beren sarreraren dirua berreskuratzeko.

Zine-zikloak

Osasun-egoeragatik egun indarrean dauden murrizketak direla-eta, Zinemabarri eta Zine-Klub zikloetan ezarritako aldaketei ere eutsiko die Kultur Etxeak. Horrenbestez, ziklo bietan proiektzioak 18:00etan hasiko dira. Zinemabarriko proiektzioak ohiko lekuan izango dira, Muxikebarri zentroan; Zine-Klubaren kasuan, bestelakorik iragartzen ez bada, Romo Kultur Etxeko areto nagusian izango dira saioak.

“Birritan bortxatua” antzezkiuna Muxikebarrira helduko da, A25 dela-eta

Azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekitaldien barruan, Aldatzen Laguntzen konpainiak *Birritan bortxatua* antzezkiuna aurkeztuko du Getxon. Ostiral honetan, azaroak 27, izango da aurkezpena. Euskarazko bi saio antolatu dira, Muxikebarrin (Arrigunaga aretoa) biak: 18:30ean eta 21:00etan. Sarrerak 8€ balio du.

Nagore Laffage eta La Manadaren auzietan oinarritutako fikzio dokumentaleko lehen lana da. Saioa Royok eta Ion Martínezek interpretatua, “*bortxaketa baten ondoren emakumeak jasaten duen biktimizazio bikoitzaren argazki gordina da: eraso bera eta haren ondorio bortitzak*”.

Herriko jaietan, gau batean, bortxaketa bat pairatu duen emakume bat da protagonista obra honetan. Beldurra gaindi-

tuta, eraso salatzea erabaki du. Orduan hasiko da berarentzat bigarren amesgaiztoa. Emakume honek erasoari eta haren ondorio bortitzei nola aurre egiten dien, prozesu judizialaren bizipena eta gizarteak emandako tratua ditu oinarri lanak. Ikuskizunak protagonistaren lekuan jartzeko aukera ematen digu. Gaur egungo gure gizarteaz hausnartzeko parada ezin hobea.

“Getxon gozatzeko Planak 2021” egitasmoari atxikimenduak

Getxoko enpresek urtarrilaren 10era arteko epea dute beraien esperientzien eta jardueren turistikoen eskaintza txertatzeko *Getxon gozatzeko Planak 2021* egitasmoan, hala nahi izanez gero. Helburua da kontsumitzaileari udalerrian dagoen eskaintza hurbiltzea bertako egonaldia errepikatuzko, turisten eta bisitarien egonaldia luzatzeko, etab. Liburuxka argitaratzeaz gain, sustapen- eta hedapen-kanpaina bat egingo da web orrian, @GetxoTurismo-ko sare sozialetan, publizitate-euskarrietan eta bestelako elementuak jende asko biltzen den eremuetan. Informazioa: planesgetxo@getxo.eus, getxoplanak@getxo.eus.



Iñaki Bernaolaren eleberrien trilogia

Iñaki Bernaola idazleak *El célibe*, *Plegaria por un niño olvidado* eta *La leona que quiso ser gacela* liburuak aurkeztu ditu Algortan, Irlandak eta kleroak atzealdeko oihala gisa dituzten eleberrien trilogia. Michael Fogarty eta Kelly O'Brien dira protagonistak, baita beste pertsonaia batzuk ere, hala nola Molly, Michaelen arreba, edo apaiz eta moja talde bana, elkarren artean batere antzik ez izan arren, gorabehera asko partekatzen dituztenak. Hiru istorioetan giza dramak planteatzen dira, eta agerian geratzen dira pertsonen, bereziki, eta gizartearen, oro har, eragiten dien edozein arazori buruzko jarrera, pentsamolde eta interes kontrajarrak.



“Ahora tocan ellas” kontzertu dramatizatua

Ainhoa Rinconek (biolina, ahotsa, aktorea) eta Ixone Mendieta (pianoa) *Ahora tocan ellas* izeneko kontzertu dramatizatua eskainiko dute larunbatean, azaroak 28, 19:00etan Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Sarreraren prezioa 5 eurokoa da. Kontzertu-ikusizun honetan historian zehar emakumeek konposatutako lanak emakumezko pertsonaia nabarmenekin elkartzen dira, nor izan ziren kontatzeko edo kantatzeko. Errepertorioan Maria Theresia von Paradis, Lili Boulanger, Clara Schumann, Emiliana de Zubeldia, Fanny Mendelssohn, Rachel Portman eta Anne Dudley musikagileen lanak daude sartuta, gehienak biolin eta pianoarekin interpretatuak, baina pianorako eta piano eta ahotserako piezak ere entzun ahal izango dira.

Izaro Ieregi “Encontrarás la manera” aurkeztuko du

Izaro Ieregi getxotarrak *Encontrarás la manera* bere proiektua aurkeztuko du ostiral honetan, azaroak 27, Romo Kultur Etxean, 16:00etatik 19:00etara, *Getxoarte 2020: artista bat auzoan* ekimenaren barruan. Topaketan, berrogeialdian ondutako proiektuaren sormen-prozesuak jorratuko ditu, Arte-Batxilergoko ikasleen aurrean.

Ieregi UPV-EHUko Arte Ederretako Fakultatean lizentziatu zen (2010), eta banakako erakusketak egin ditu hainbat lekutan bere lanak aurkezteko: San Martín KZgunea, Buenos Aires (2017); Chinese European Arte Centre, Xiamen (2017); Guggenheim Museoa, Bilbo (2017); eta NY Space, Manchester (2016), besteak beste.

200.000€-ko diru-laguntza arautzeko hitzarmena onartuta Urgulleko lokala birmoldatzeko proiekturako

Udalak onartu egin du Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria-Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioari emandako 200.000€-ko diru-laguntza arautzen duen hitzarmena, Algortako Urgull kaleko lokala eta haren ekipamendua egokitzeko lanak eragindako gastuetan laguntzeko. Helburua da lokala adinekoen zentroa eta lankidetzarako eta coworking-erako espazioa izateko egokitzea eta baita Udalaren berezko jardueretarako ere (besteak beste, zahartze aktiboa edo unean uneko beste jarduera batzuk), bai eta erakunde sozial, kultural eta getxotarrentzat ere. Obrak kasuan kasuko lizentziak izapidetu ondoren hasiko dira. Proiektuaren aurrekontua, guztira, 440.666€koa da (BEZ kan-



Proiektua irudikoaren antzekoa izango da

po), eta altzariena 32.372€koa (BEZ kanpo).

Proiektuak tokiaren birbanaketa aurreikusten du eta ondorioz lehenengo solairuan heldutasun

aktiboa sustatzeko guneak izango dira, Getxo Lagunkoia programaren barruan.

Solairu horrek 381 metro koadro ditu, eta han besteak beste,

erabilera anitzeko aldea, jolas-jarduerak egiteko gune bat eta proiektu kolektiboak eta pres-takuntza-jarduerak garatzeko lau areto izango dira, guztiak ere beharrezko baliabideekin. Auzoko erakunde eta elkarteek, batez ere adinekoek, hala nola Algortako erretiratuen elkarteak (AJANE), planta hori erabili ahal izango dute. Egoitza horretan adinekoentzat egiten diren egungo jarduerak errespetatuko dira.

Bestalde, behe sotoan (158 metro koadro) lan kolaboratzaile-rako (Coworking) gunea izango da, ekintzaileak laguntzeko eta baita udalerriko enpresa txikiak ere, ekintzailatza eta kudeaketarako aholkularitza prozesuekin.

Lanean migratuen eta errefuxiatuen Harrerari buruzko Diagnostikoa egiteko

Udala migratuen eta errefuxiatuen Harrerari buruzko Diagnostikoa egiten ari da, etorkizunean harrera-plan komunitario bat egite aldera. Ekinmenaren helburua da elkartasuna eta kultura-aniztasunaren onarpena sustatzea, abantaila gisa ulertuta, 2020-2023 Udal Legegintzaldiko Planaren erronken artean jasotzen den bezala. Getxo Kulturarteko Hiri gisa kokatu da mapan, Europako Kontseiluak eta Europako Batzordeak sustatutako RECI Kulturarteko Hirien Sarean parte hartze-ari esker. "Ibilbide luzea daramagu harrerari buruzko ekintzak planteatzen, eta une garrantzitsua dela uste dugu, beste esparru batzuetatik ere, autonomikotik eta Estatutik adibidez, hausnarketak eta etorkizunean eman beharreko pausoak planteatzen ari baitira. Integrazio politiketarantz lanean jarraitzen dugu, berdinta-



sunezko eta kulturen arteko gizarte batean aurrera egiten jarraitzeko", azpimarratu du Carmen Diaz Gizarte Kohesioko zinegotziak. Diagnostikoa kulturartekotasunaren, berdintasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloetako eragile, alderdi politiko, erakunde laguntzaile (besteak beste, Perualde, Mujeres con Voz,

Amekadi, UNESCO Etxea, Zabalketa, Aisibizia eta Moviltik), pertsona harreragile eta abegitsu askoren ahotsa jaso nahi du. Egungo osasun-egoera dela eta, Diagnostikoa parte-hartzea murriztu egin da. Orain arte egindako lanaren laburpena: <https://www.getxo.eus/eu/inmigracion>

30.000€ berdintasuna sustatzeko

Udalerriko emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko ekitaldiak sustatzen dituzten zazpi elkarte jasoko dituzte udalak emandako 30.000€-ko diru-laguntzak, emakumeen parte hartzea eremu guztietan sustatzen bultzatzeko, eta emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko programak laguntzeko. Emakumeen elkarten ohiko jardura funtzionatzeko eta/edo mantentzeko diru-laguntzaren lehen ildoaren barruan, Gizatiar elkarteak 6.544€ jasoko ditu, Eskuz Esku entitateak 5.046€ eta Mujeres con voz izenekoak 3.409€. Bestalde, berdintasuna sustatzen duten proiektuei zuzendutako bigarren ildoak 2.983na euro emango dizkie Amesten eta Mujeres con voz elkartei, 2.860€ Aisibiziari, 2.772€ Bidea Eginez elkarteari, 1.800€ E-civis elkarteari eta 1.600€ Gizatiarri.

Kanpaina Migratzaileen Nazioarteko Egunari begira

Udalak Europako Kontseiluak sustatutako Intercultural Cities programaren ekimenarekin bat egiteko deia egin die herritarrei. Getxok parte hartzen du programa horretan, RECI-Kulturarteko hirien sarearen bidez. Helburua da kide diren hirietan bizilagunei ahotsa ematea, haien jatorria edozein dela ere, abenduaren 18an Migratzaileen Nazioarteko Eguna ospatzen dela eta. Pertsona interesatuek, beren hizkuntzan, argazki bat edo gehie-

nez 10 segundoko bideo bat bidali behar dute, honako hau dioen kartelarekin: *Harro Getxon bizitzeaz, kulturarteko hirian bizitzeaz!*. Proposamenak aurkezteko epea azaroaren 30ean amaituko da, kulturartekotasuna@getxo.eus helbide elektronikoa.

Udalak jasotakoa Intercultural Cities-era bidaliko du eta horrek muntaia bat egingo du abenduaren 18rako. Hori gizarte sareen birtartez zabalduko da eta udal web-gunean eskegi ere.

25.000€ Zabalketa GKEaren SolidaridUP proiekturako

Zabalketa GKEak, Udalaren laguntzarekin, abian jarritako SolidaridUP programak 25.000€-ko diru-laguntza jasoko du, hori sustatze aldera. Proiektua udalerriko herritar sentsibilizatuak eta konprometituak sustatzera eta finkatzera bideratuta dago, hainbat elkartasun ekimenen bidez. Ekimen horiek garapen- eta lankidetz-eragileen arteko aliantza garatzen dira, bizikidetz, estereotipoak ezabatzea eta giza eskubi-deak betetzea bultzatuz.

SolidaridUP programaren lan-ildoak dira udalerriko saltokien bidez Getxoko GGKEek garapenerako lankidetz, sentsibilizazio eta hezkuntza arloetan egiten duten lana ezagutaraztea eta ikusaraztea, eta, aldi berean, herritarrei keinu solidario txikiekin inplikatzeko aukera ematea. Keinuhoriek parte hartzen duten establezimenduetan produktuak edo zerbitzuak ordainduta uztea dira, behar dituzten pertsonentzat. Informazioa: <https://solidaridup.org/eu>

Udal talde politikoaren iritzia



GETXOKO EAJ-PNV EUSKARALDIAREKIN BAT

Getxo, kosmopolita eta Euskadin sus-traitua. Mundura irekia eta herriarekiko konpromiso handiarekin; konpromisoa euskararekin, gure kultura eta ohiturekin. Geroz eta globalagoa den mundu batean, euskal erakundeekin lankidetzan, lan egingo dugu Getxo nortasun propioarekin aurkeztua izan dadin. Konpromiso horrekin aurkeztu ginen, Getxoko Euzko Alderdi Jeltzalea eta Amaia Agirre buru duen taldea, orain dela urte eta erdi egin ziren udal hauteskundeetara. Eta, nola ez, datorren abenduaren 3an ospatuko den Euskararen Nazioarteko Egunaren bezperan, konpromiso berbera berresten dugu. Euskaraldia ospatzen gaude berriro ere, COVIDaren pandemia dela-eta dauzkagun zailtasun eta berrikuntzak gorabehera, euskararen erabilerari ematen diogun babes hori publikoki azaltzeko. Oraingo honetan, gure hizkuntzarekiko konpromisoa ospatzen eta azpimarratzen dugu, ez bakarrik gutako bakoitzaren maila pertsonalean, baita erakunde politiko gisa ere; bere jardunean eta bere kudeaketa-guneetan euskararen erabilera eta hizkuntza-ohituen eraldaketa sustatzeko konpromisoa azpimarratzen



duen erakunde gisa. Euskaraldiaren lehen edizioan, Euzkadi Buru Batzarrak adierazpen bat aurkeztu zuen, non zera baitzioen: "hizkuntza-praktika berriak bultzatuko dituzten eta herritarren artean euskararen erabilera handiagoa sustatuko duten testuinguruak sortzeko beharra dago, eta hori da, hain zuzen ere,

Euskaraldiaren helburua. EBBk ondorioztatzen du hizkuntza-normalizazioaren erantzukizuna pertsonena zein erakundeena dela; gu guztiona. Aktibatzea dagokigu". Bi urte geroago indarrean jarraitzen du adierazpen horrek, Euskaldiaren edizio berri honetan. Bertan, Getxoko EAJ-PNV bere gain hartu dituen konpromisoak bete-

tzen ari da, esaterako, bere jardueretan euskara bakarrik edo gehienbat euskara erabiliz, edo ARIGUNEAK edo harremanak euskaraz izateko guneak eratuz eta horiek ahalbidetuz. Denok izan gaitezke Ahobizi edo Belarriprest eta denok gehitu gaitezke Euskaraldira; baita Getxoko udalerrian ere.



APARKALEKUAK BEHAR DITUGU MERKATARITZA SALBATZEKO



Gabonak iritsiko dira eta, horrekin batera, itxaroten genituen Gabonetako erosketak. Aurtengo urtea desberdina da. Gure merkataritza eta ostalariek era guztietako zailtasunak izan dituzte hilabete amaierara iritsi ahal izateko. Udalak bere aletxoak jartzeko unea iritsi da. Horrela, jakinda Gobernu taldearen utzikeriari esker Manuel Gainza aparkalekua, uztailetik bukatuta,

ezingo dela gutxienez datorren urteko martxora arte erabili, EAJri eskatzen diogu utz dezala aparkaleku hori zein San Nikolas plazako aparkalekua erabiltzen. Oztupoak behin-behinean kendu ditzala eta, adibidez, Lanbidetik eratorritako langileak kontratatatu ditzala proposatzen diogu. Nahi bada, posible da; borondatea bakarrik behar da. #esnatugetxo



EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU: GEHIAGO, GEHIAGOREKIN ETA GEHIAGOTAN!

Azaroaren 20an hasi zen Euskaraldiaren bigarren edizioa! Abenduaren 4ra arte getxoitarrok aukera izango dugu gure hizkuntza-ohiturak astindu eta euskararen erabilerari bultzada emateko. Getxoko EH Bildutik erronkari heldu diogu eta "Arigunea" izango gara, gure herriko hainbat elkarterekin batera. Ahobizi, belarriprest, irribiziak... jantzitxapaetaaktibatueuskara! Euskaraldiak irauten duen bitartean, hainbat erakunde eta alderdi politiko ikusiko ditugu euskararen aldeko mezuak zabaltzen eta argazkietan ateratzen. Bikaina da hori. Baina are hobea izango litzateke erakunde, alderdi eta eragile horiek guztiek konpromiso zehatzak hartuko balituzte urte osoan zehar euskararen normalizazioaren alde. Azken asteetan horren hainbat adibide topa ditzakegu. Eusko Legebiltzarrean

EH Bildutik euskara ikasteko doakotasunaren aldeko proposamena aurkeztu genuen, eta EAJ-PSE-PP hirukoak atzera bota zuen. Getxoko Udalean bertan ere urrian mozioa aurkeztu genuen, Udalean euskararen erabilerari lehentasuna emateko eta euskaldunon hizkuntza-eskubideak bermatzeko. Izan ere, uneoro jasotzen dugu dokumentazioa erdara hutsez, edo euskarazko bertsioa beranduago heltzen da, edo bilerak erdara hutsean egiten dira... Bada, EAJ-PSE-PP hirukoia ere, kontra agertu zen. Euskararen alde bai, baina erdaraz egiten jarraitzen dugun bitartean. Bada garaia euskararen normalizazioaren aldeko konpromiso zehatzak hartzeko, erakunde eta herri-mugimendurekin batera. Gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan, urte osoan!



LEHENTASUNAK COVID 19: GIZARTE-BABESA

Urtea ixteko zorian gaude eta balantzea egiteko garaia iritsi da. 2020 urte hau bereziki urte zaila izan da, bizi dugun osasun-krisia dela eta. Osasun-krisi horren ondorio suntsitzaileek ondorio zailak dituen krisi ekonomiko global bat dakarte berekin, eta, horren ondorioz, krisi pertsonal asko agertu dira udalerriko auzotarren artean; bat-batean, lanik gabe eta oinarrizko premiei eta familiarren premiei aurre egiteko diru-sarrerara nahikorik gabe geratu baitira asko eta asko. Egoera horien aurrean jokatzeko du larrua udaleko gizarte-babeseko sis-

temak. Egoera zail horri erantzun eta eskaerari erantzun ahal izateko, Udal Gobernuak udal laguntzen sistema zabaldu zuen, eta covid 19ak eragindako zailtasun ekonomikoko egoerak artatu zituen eta % 267 handitu zuen izaera sozialeko prestazioen partida. Era berean, GLLen eskaera guztiei erantzun zien. Era berean, udal-laguntzetan ezartzen ziren lehengo baldintzak malgutu dira, ohiko profilak ez diren beste profil batzuek laguntza horiek eskuratzeko aukera izan dezaten.



OSTALARITZAK ETA EGOITZAK PREMIAZKO LAGUNTZA ESKATZEN DUTE

Bitzita erdigunean jartzeak zaintzen gaituztenen lana duintzea esan nahi du. Horregatik, **udal egoitzako** langileen aldarrikapenak babesten ditugu, zeinek pandemia betean egindako **murrizketak** eta gehiegizko lan-karga salatzen baitituzten eta lan-egutegi duina eskatzen baituten. Eta zaintzea, halaber, erakunde gisa gehien behar gaituztenean maila izatea da: **ostalaritzak** **premiatzko laguntzak** behar ditu.

Horregatik, hil honetako osoko bilkura (azaroaren 26koa) eraman genuen sektore horretarako laguntza zuzenak, hoberiak eta tasen salbuespenak eskatzeko eskaera. Udal Gobernuak (EAJ-PSE) fitxa mugituko duela eta egoerak eskatzen duen mailan egongo dela espero dugu. Tamalez, beste behin, udal hau BERANDU doa eta ostalaritza ondorioak pairatzen ari da. Kontakua: elkarrekinpodemos@getxo.eus